

# → AMESLARIOK... ZER BERRI?

ASTEKARIA: 74. alea

DATA: 2026/05/22

## GUREAN

### PING-PONGEKO ONENAK

Jolasgaraietan, mahai-tenisean ederki gozaten dute ikasleek. Gero eta maila altuagoa erakusten dute astero, ikasturtean zehar. Kirolarekiko trebetasuna argi geratu da aurtengo ping-pongeko txapelketan. LHko 3.mailatik 6.mailara arteko partehartzaile ugari egon da, 70 zehatz-mehatz. Lehia itzela ikusi dugu portxean hilabete honetan. Asteartean finala jokatu zen eta aurtengo irabazleak ezagutzeko aukera izan genuen: Odei Berastegui eta Aratz Diaz izan ziren txapeldunak. Finalean, Iñigo Campos eta Unax Echeverriaren aurka jokatu zuten. ZORIONAK parte hartu duzuen guztiei!!



## MENDEKOSTE JAIK

NOIZ: MAIATZAK 22-24  
NON: LEZO



Maiatzaren 22, 23 eta 24an, Lezok Mendekoste Jaiak ospatuko ditu, bertako musika, tradizio eta giroz beteriko asteburua. Kaleak jardueraz betetzen dira: desfileak pertsonaia tradizionalekin, zuzeneko musika, dantzak, afari herrikoiak, pilota partidak, erraldoi eta buruhandiak, kontzertuak eta kalejirak. Jaien hasiera bereziki koloretsua da, jende asko pirataz jantzi eta herri osoa giroz betetzen baita.

EGITARAU OSOA: 

## BAZENEKITEN?



ERDI AROKO AZOKA EGINGO DELA  
HERNANIN ASTEBURU HONETAN?



**ZUEN PROPOSAMENAK  
HONA BIDALI:**  
[melvira@herriametsa.eus](mailto:melvira@herriametsa.eus)